

ON PEDRO VITERI JAUNARI



Pozez betea arki
da Errenteriya,
idikitzen dalako
gaur eskol berriya;
¿nola ez izan egun
gogoangarriya
ill badu aspaldiyan
zeukan egarriya?...

Gizon noble ta on bat
munduan zebillen
jendia, ikasiyez,
ernatu zediyen:
t'onuntz bein etorri ta
onla esan zuen:
«eskolacho bat egiñ
nai nuke nik emen.»
...¡Noiz pait!... eman zitzaion
ortako tokiya
ta alcha zan eskola
eder, egokiya
beartzan bezelako
zabal ta aundiya
onratutzen duena
chit Errenteriya.

Gizon ongille ori
da Pedro Viteri;
erri onek zor dizka
eskerrak berari,
bada doañezturik
eche eder ori

chit mesede aundiya
egin digu guri.

Ta nola ezpaigeran
gu eskergabeak
zorra paga zalogun
Errenteiko umeak
esanaz biotzetik
pozkiroz beteak,
«artu bitza eskerrak
on Pedro nobleak.»

Ikustean gaur aurrak
anche, paretian
on Pedroren ekantza
kuadrocho batian
esango dute pozez
abua betian
¡bizi bedi Viteri
denbora luzian!

Ta aurchuen ojuak
on Pedron barrena
utziko dute pozez.
chit betia dena,
gaurdandik da oyentzat
Viteri-n izena
munduko gizon onen
artian onena...

Orain eska deiogun
zeruko Aitari
osasuna diyola
Viteri jaunari,
egin ditzan eskola
ederrak ugari,
emanaz onr'aundiya
Euskal-Erriyari.

ENRIKE ELIZECHEA.

Errenterian 1904-ko Apirillaren 11-an.

